



Irakasleen 2. hizkuntza-eskakizuna (HE2)

Zer da HE2?

Irakasleen HE2 hizkuntza-eskakizunak euskara, harreman-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza moduan ere erabiltzea bermatzen du, bereziki euskara edo euskaraz irakatsi behar den lanpostuetan (ikus 47/1993 Dekretua, apirilaren 2ko EHAAn). Europako Erreferentzia Markoaren C1 mailari dagokio.

Noiz dira azterketa-deialdiak?

Urtero deialdi irekia izaten da, irakasle eta hezkuntza-langileentzat. Hezkuntzarako oposizioak deitzen direnean, hizkuntza-eskakizunen azterketa deialdi irekiaren barnean egiten da. Azkenik IRALE programan liberatuta dauden irakasleek eta hezkuntza-langileek deialdi itxian parte har dezakete. Matrikulatzeko epea urtarril aldera izan ohi da.

Nolakoak dira azterketak?

Hiru proba daude, egun desberdinetan:

- **Atariko Proba:** aukera anitzeko galderaz osatua dago. 70 galeretatik 45 asmatu behar dira gutxienez.
- **Proba Idatzia.** Hiru ariketa ditu: Irakurmena, Idazlan laburra eta Idazlan Luzea.

ARIKETAK	PUNTUAK
Irakurmena	Otik 10era
Idazlan Laburra	Oso Gutxi 1
	Gutxi 2
	Nahikoa 4
	Ongi 6
Idazlan Luzea	Oso Ongi 8
	Oso Gutxi 5
	Gutxi 10
	Nahikoa 15
	Ongi 20
	Oso Ongi 25
Gainditzeko	24 puntu

- **Ahozko Proba:** epaimahaiaren aurrean mintzatu behar da. Bi zati ditu: entzundako audio baten Azalpena eta aztertzaileekiko Elkarrizketa gidatua.

Zeintzuk dira HE2ren baliokideak?

Baliokidetza Dekretuaren esteka:

http://www.euskadi.net/cgi-bin_k54/bopv_20?e&f=20101115&s=2010219